

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Patricia Troncoso maputxeak 100 egun gose greban

Hego Amerikako demokrazien eredutzat aurkezten den Txilen, aspalditik ezkutuan edukiriko arazoa ari da ateratzen argitara: mende eta erdiz baztertutako maputxe jendeak eskubideak aldarrikatzen ditu. Michelle Bachellet presidente sozialistak Pinocheten legea ezarriz erantzun die.

PATRICIA ROXANA TRONCOSO hilik egon liteke irakurleak orriok irakurriko dituenarako. Bizi bada, 100 egunez goiti eramango ditu gose greban, 38 urteko maputxe militante gazteak urriaren 10ean egin zion-eta jateari uko. Abenduaren erdialdean utzi zuten baraualdia berekin batera hasiak ziren Jaime Mari-
leo, Juan Millalén eta José Huenchunao militanteek, Temuco hiriko apezpiku katolikoaren bitartekaritzaren ondoren eta Michelle Bachellet lehendakari sozialistak zirkinik egin gabe hiltzen utziko zituela ohartuta. Aldiz, Troncosok hasierako aldarrikapenen alde bukaeraino jarraitzea dauka erabakita.

Jan barik 75 egun zeramatzan egunean, Eguberri bigarrean, espetxetik gutun zorrotza zabaldu zuen Troncosok. Bertan salatu zuen maputxe jendearen gain Txileko Gobernuak erabiltzen duen basakeria, polizia enpresagizonen zerbitzurako usatzea, maputxeak Pinochet diktadorearen garaiko lege antiterroristaz zigortzea. Tartean, gaztetan torturak jasandako Bachellet eta bere gobernukideei zuzendutako esaldi gogorra: “Zer espero genezake gure borroketatik, beraiek zigor hauek guztiak nozitu zituen belau-naldi batekoak izanik, denborarekin gizatasuna galdu baldin badute hainbeste pertsonaren erbesteratzea, torturak, pertsegizioak eta heriotza ahazteraino?”

Patricia Roxana Troncoso haur hezkuntzako irakaslea da, Teologia ikaske-

tak egin zituen Valparaisoko unibertsitate katolikoan. 2002an atxilotu zuten karabineroek, Nekazaritzako ministro izateaz gain Auzitegi Konstituzionaleko kide eta Pablo Neruda fundazioaren lehendakari den Jose Agustín Figueroaren etxalde bati eraso egin izanaz eta basogintzako konpainia handien kontrako beste bortizkeriez akusatuta. Txileko estatuak legez kanpo jarria duen Coordinadora de Comunidades En Conflicto Arauko Malleko erakundeko kide izatea ere egotzi zioten.

Lau auzitan epaitu dute Troncoso, hirutan erabat errugabe utziz, baina maputxeen etsai nagusietakoa den Empresa Forestal Mininco famatuari egin eraso batengatik 10 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Bere zigorraren erdia betea duen arren, Txileko justiziak ez du kalean utzi, militante maputxeen kontra Pinocheten garaiko legean oinarrituta.

Asko dira –tartean Nazio Batuen Erakundeak bidalitako berriemaile berezia, Rodolfo Stavenhagen– Txileko Gobernuari basakeria hau aurpegi-ratu diotenak. Baina handiak dira ere lurjabe aberatsen eta egur konpainien interesak, eta hori bezain handia Txileko gehiengo zuriak indioekiko daukan mespretxua. Berrikitan hango komunikabideek zabaldu duten inkesta baten emaitzek diote herritarren hiru laurdenek agintariei eskatzen dietela maputxe militantei gogorrigo jazartzea.

Argazki handia Antitezo sinatzen duen batek ipini du Interneten eta erakusten du maputxeen eskubideen alde eta gose greban zeuden militanteekiko elkartasunez egindako manifestaldian poliziek burututako arrestatzeetako bat, Txileko Temuco hirian. Argazki txikioa da Patricia Roxana Troncoso irakaslea, lerrook argitaratzerakoan bizi bada 100 egun baino gehiago gose huelgan eramango dituen. Mende eta erdi honetan sekulako gainbeheran hondoratu dira maputxeak, baina azken urteotan beren nortasunaren eta eskubideen aldarrikapenak ugaritu dituzte, Txilen batik bat. Estatuak kanpotik ekarritako laborariei eta egur enpresa handiei emaniko lurrak hasi ziren exijitzen. Azkenaldian, nazio direnez dagokien autonomi eskubidea aipatzen dute. Orain artean, hitz ederrez eta errepresioz erantzun zaie.

Beren buruei *mapudungun* (Lurreko jendea) deitzen diete maputxeek. Gaztelaniaz *araukanos* deitu izan zaie, baina ez dute gustuko izendapena. Maputxeek arrakastaz egin zieten aurre Espainiatik joandako konkistatzaileei, ez ordea Txile eta Argentina sortu berriek XIX.ean egindako gerrei. Bi estatuotako eliteek ez dute geroztik maputxeekin erruki handigorik erakutsi AEBetakoek *Far West*eko indioekin eduki zutena baino.

Gaur egun nazio horretako pertsonak zenbat diren jakitea ez da erraz. Batzuek 900.000 izan daitezkeela diote, hiru laurdenak Txilen izanik eta gainerakoak Argentinan. Txilen 1992ko erroldak 900.000 maputxe aipatu zituen, eta aldiz 2002koak 600.000. Estatistika arazoak? Militanteek salatu duten “bulegoetako genozidioa”?

Hasieran legez errespetatu zitzaizkien lurrak gero kendu zizkietela eta, maputxeek aspalditik jarkitzen zaizkio ahal bezala gizon zuriari. Baina Txilekoek borroka gogortu zuten 1990eko hamarkadan, Eduardo Frei-ren gobernuak eta ondorengoek maputxeen oihanen gaineko eskubideak basogile handiei eman zizkietenetik.

Egurra, baserriak eta indio alferrak

Urtea hasi eta berehala, urtarilaren 3an, maputxeenak direla aldarrikatuz baserri handi baten okupazioan parte hartzen ari zela, Matías Catrileo gaztea



hil zuten balaz poliziek, Temuco inguruetan. 22 urteko gazte unibertsitario honen heriotzak inarrosi ditu bazterrak Txilen. Politikari ugariak protesta egin behar izan dute Gobernuaren poliziak lege antiterrorista etxaldean okupazioa bezalako arazoetan erabiltzen duelako, eta maputxeek Catrileoaren hilketarekin berriro gogoratu behar izan dituzte azken urteotan antzeko gertakizunetan hildako militanteen heriotzak.

Interneteko bilatzaileetan Matías Catrileo izenaz eginez gero galde, euskaldun batek ipinitako bideo hunkigarria aurkitzen da. YouTube bitartez ikus daiteke Catrileo gaztea maputxeen arazoak eta autonomi politiko nahia esplikatzen, eta ondoren entzuten da poliziek tiroz jota gaztea hilzorian daramatela beste militante batzuek tele-

fono mugikorrez egindako kontakizun larritasunez bete. *Ardañka* izeneko bloga egiten duen Aner Mentxakak ipini ditu materialok sarean. *Gararen Xirika* gehigarrian kazetariari honela esplikatu dio testuingurua: “Txirotasunak beharturik, lur hauen okupazioan buru-belarri hasi dira azken urteetan. Enpresek egurgintzarako erabiltzen dituzte batez ere lapurtutako lurrak. Maputxeek eremua okupatu ondoren, bertako pinu edo eukaliptoak mozteari edo su emateari ekiten diote”.

Polizia azaldu eta ihesi zihoala atzetik tiro egin eta lehertu zizkioten erraiak Catrileori. Antzekoa gertatu zitzaion 2002an Alex Lemun izeneko beste gazte bati. Ez dira bakarrak izan. Maputxe baten biziak askorik ez du balio Txilen. Catrileo lurperatzerakoan, Temuco-

ko hilerrian, bertaratuen artean aurretik hildakoen senitartekoak baziren. Baita Pinocheten garaian karabineroek hil zituzten MIR erakundeko militanteen amak ere.

Matías Catrileo eta beste 30 gazte Santa Margarita etxaldea okupatu nahi zuten. 238 hektareatako baserri horren jabea ez da edonor: Jorge Luchsinger, beren antzinako lurren eske ari diren maputxeci gogor egiten dieten lurjabeen ikurra da. *Azkintuwe* aldizkariak dioenez, 1883an Suitzatik iritsitako laborarien askazikoak dira gaurko Luchsingertarrak.

2005ean beste eraso bat nozitu zuten Santa Margaritan, eta orduan Luchsinger senar-emazteak ospitalera eraman behar izan zituzten, kaputxadunek kolpatuta. Militante maputxe batzuk kondenatu zituzten hargatik, nahiz eta haiek ukatu inolako zerikusirik zutenik. Epaketan zenbait irregularitasun ere gertatu zen. Eta gertakizun haren ondotik, berriro azaldu zen lehendik ospe tristea zeukan Comando Hernán Trizano talde paramilitarra.

Hitzokin mintzatu zen orduan Luchsinger: “Ezin zaie lurrik eman maputxeci... Horrek miseria ekarriko du, maputxeak ez baitu lanik egiten. Ez da arazoa konponduko. Ikusi duzu nola dauden Estatuak eman dizkien lurrak? (...) Indioak ez du inoiz lanik egin. Maputxea depredadorea da, ez du ahalmen intelektualaik, ez gogorik (...). Maputxea gaiztoa da, bihurria, bilaua”. Luchsinger honi belar fardoak erretzera joana zen Matías Catrileo. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL. 943 420 624

G A R A N T I A